

## Inauteriak iritsi dira Lasarte-Oriara

- Atzo, ostegun gizona, Musika Eskolako ikasleek emanaldi bufoa eskaini zuten
- San Ferminak, desfile erraldoia eta Euskal Inauterien konpartsa izango dira asteburuan

Egunerokotasun aldera batera utzi eta ongi pasatzeko garaia iritsi da, Inauteriak.

Lasarte-Orian, Tolosan bezala atzo hasi ziren jaiak. Manuel Lekuona kultur etxe-ko hitzaldi aretoa printzesa, mamu, superheroi eta hainbat pertsonaiz bete zen, Udal Musika Eskolako ikasleek eskaini zuten emanaldian.

Eskola txikiak eman zioten hasiera eta ederki dantzatu eta abestu zuten *Astoa ikusi nuen* kantua. Jarraian, musika eskolako instrumentuetako batzuen doinuak, hala nola, gitarra, txistu eta teklatu entzun ahal izan ziren eta sorpresa bat ere egon zen.

### San Ferminak

Larunbata goizean, San Fermin jaietako giroa egongo da gure kaleetan.

Txupinazioa Sagardotegi kalean, buruhandi eta erraldioen kalejira berezia egingo dira.

Pintxopotea ere egingo da: Jalgin hasi, Buenetxea, Iñaki, Insusti, Avenida, Ilargi, Dakara eta Sagardotegi kalera buelta.

Taberna hauek San Fermi- netan girotuak egingo dira

eta gainera, eskaintza berezia izango dute eguerdi osoan, pintxo gehi edaria euro bat eta erdira.

Kalejiraren ostean bazkari herrikoa egingo da Sagardotegi kalean. Bakoitzak bere etxetik eraman beharko du otordua, eta Arrieskalleta elkarteak prestatutako salda, txorzoa eta odolki egosi pin- txoekin osatu ahalko da.

Eta bazkaldu ostean, herri-ko "artista" desberdinek eman-aldi berezia prestatu dute.

### Desfile erraldoia

Arratsaldean, berriz, herriko elkarte eta talde desberdinek antolatzen duten inauterietako desfilea egingo da.

Azken bi urteetan herrian sortu den festa erraldoi politaren emaitza ikusita, elkar-teen berritoki elkarrekin inauterien jaietan barneratze-ko bat egin dute.

Isla plazatik aterako da hau eta kale Nagusitik barrena Andatza plazara egingo du. Ostean, berriro Kale Nagusira egin eta San Pedro eliza ondo-ko Elizatze plazan amaitzeko.

### Jaiarekin jarraitu

Desfilea amaitu ostean orain-



Udal Musika eskolako txikiak izan ziren Inauterietako giroa atzo Manuel Lekuona kultur etxera eraman zutenak.

dik gozamererako eta ondo pasatzeko astia egongo da gure herrian.

Esate baterako, arratsalde-ko 19:30etik 21:00ak bitar- tean Erromeria antolatu da Sagardotegi kalean.

Eta parranda ordu txikiak arte luzatzeko aukera dago ere, herriko tabernetan edo Udalak Loidi Barreneko pilo- talekuan antolatu duen dan- tzaldian.

Euria eginez gero, Sagardo- tegi kalean egingo diren ekin- tza guztiak, Loidi Barreneko pilotalekuan egingo lirirateke.

### Euskal Inauteriak

Igandean, berriz, ohitura den legez, Euskal Inauterien kon- partsa aterako da.

Goizean, 12:00etatik aurrera, euskal doinu eta dan- tza desberdinak erakutsiko dituzte herriko kaleak alaituz.

Gainera, saio honetan, berri- kuntza bat dakarte, Oriako Sorgin dantza.

Horregatik, konpartsa-ko lagunek herritarrak animatu nahi dituzte jaietan parte har- tzera.

Arratsaldeko saioan, 18:15an hasi eta 19:30ak aldera, erdigunean, Lasarte- Oriako inauteriei amaiera ematen dien ekitaldia egingo dute, hartaren erretzea. •



Euskal Herriaren elkartasun astean bost herritar Turin eta Florentzian egon dira /4

### KIROLA /6

LOKEko judoka gazteek domina ugari lortu dituzte Estatuko sanbo eta Euskadiko txapelketetan



Diru laguntzen ikerketa batzordearen oztopoak eta Somoto auzia /5

## M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

### KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



**Neure kabuz**



**Inauteriak vs Aratustekak**

Inauterietan gaude bai, eta han eta hemen, egun hauetan, hainbat moztor ikusteko aukera izango dugu. Agian, ez da herririk izango moztorrotu eta, umeak naiz helduak, jai giroko egun batzuk antolatuko ez dituztenik. Hau ere beste errito bat bihurtu zaigu. Erritual honek duen berezitasuna aztertzea oso polita da. Hemen inportantea moztorrotu da eta moztorrotzea. Jaiaren grazia, beraz, itxuraldatzean dago. Gu garena, orain, egun hauetan, jolas tankerara moldatu eta "dena librearen" arautara eramatea.

Bada, ordea, inauteria ulertzeko beste molde bat Euskal Herrian, eta bereziki Bizkaiko leku askotan mantendu dutena. Izena ere beste bat du; ez da inauteria esaten, aldiz eta askotan kontrajarriz, aratusteka deitzen diote. Hemen inportantea ez da, geure buruari zer gehitzen diogun, alderantziz baino. Zer kentzen diogun, hori da konturatu beharrekoa. Hustu egin behar gara, kendu, bota, baztertu, desegin. Zer kendu? Egutero jantziarik daramagun "moztorrotu". Hemen dago sekretua.

Hau dena pertsonalki naiz herri bezala edo munduko gorabehera guztietan, nolabaiteko kide bezala ere, uler dezakegu eta, zer jantzi daramagun aztertu, horrela, zenbat horietako jantziarik hustu behar garen ikusiz. Adibide asko ditugu hausnartzeko. Begira ipar Afrikan gertatzen ari den "mugida". Batzuk estalkia kendu beharrean aurkitu dira (Egipton, Tunisian, Libian) eta beste asko, horie eraso eginaz, justiziaren izenean, beti ere, demokrata jantzia berritzen ari dira (Europar, AEEBB, Euskadin), baina dena jantzia da, dena jolasa, dena joko makabroa. Eta hipokresia egiazi parrez, orain ere, itxurakeria agintean eta agintzen dutenen itxurakerian kalean. Eta Lasarte-Orian gertatzen ari denak ez ote du horretatik gehiegi? Ari direnak ari, denek justizia aldarrikatuz eta benetan udalerrri zuzenago eta hobeto baten alde, ari ote dira? Hau poza nirea, hauteskondeak gainean izango ez balira!

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Ines**

Zorionak zure bizilagunen partetik, Iker eta Nora.



**Sandra**

Zorionak guapa! Bihar zezenekin kontuz ibili! Ondo pasa!



**Julen**

Zorionak zure bedertzigarren urtebetetzearen familiareen partetik.



**Alazne eta Izar**

Zorionak amatxo eta Izar. Leire eta Joxanen partetik.



**Lur**

Zorionak printzesa, 5 muxu amatxo eta aita-xoren partetik.



**Nara**

Zorionak Pitu! Aurten moztorrotu ospatuko dugu! 8 muxu handi familiareen partetik.



**Iker eta Jose Antonio**

Zorionak bikote! 5 muxu handi lkerrentzako eta baten bat gehiago Toñorentzako, famili osoaren partetik.



**Sara**

Zorionak gaztetxo zure hamalagarren urtebetetzearen familiareen partetik.



**Eneritz**

Zorionak polita! Ondo pasa zure 4. urtebetetzean. Aitaxo, amatxo eta Nerea.



**Beñat**

Zorionak Beñat!!! Amona, aitona, Jon eta Nerearen partetik.



**Asier**

Zorionak familia eta lagunen partez. Oso ondo pasa, urtean egun bakarra dela! 19 muxu handi.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Pisu bat behar dut alokairuan, Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Tel.: 667 808 934.

• Pisu bat eskaintzen dut alokairuan Lasarte-Orian. 4. Pisu da, igogailuarekin eta erreformatuta dago. 2 logela, egongela, komuneta eta sukaldea ditu. Prezioa: 750 euro. Tel.: 680 708 249, Mario.

• Usurbilen pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komuneta. Harremanetarako: 670 070 562

• Mobil home bat alokatzen da. Oriten. Interesatuak, deitu telefono honetara: 626 057 485.

**Lan-eskariak**

• Mutil bat eskaintzen da eraikuntzan, biltegietan edo nekazaritzan lana egiteko. Eskarmentua du. Afzal Muhammad, Harremanetarako telefonoa: 667 80 89 34.

• Neska gazte euskalduna eskaintzen da, arratsaldez umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 666 040 802.

• Lasarteko neska gazte bat eskaintzen da kurtsuan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

**Oharra jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 4**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361 529

**Larunbata, 5**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361 774

**Igandea, 6**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361 774

**Astlehena, 7**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astearte, 8**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Asteazkena, 9**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Osteguna, 10**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egutero**

Chucha, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551 793

**Heriotzak**

- Marcelino Herrero Gonzalez, otsailaren 26an 67 urte zituela.
- M<sup>a</sup> Rosario Bengoetxea Tejeria, otsailaren 26an 72 urte zituela.

**Hiribusaren ordutegia**

**Lanegunetan**

Lasarte-Oria				Lasarte-Oria			
Antsisa	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antsisa	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Danok Kideren Zinema Soziala zikloa hastear dago

Adimen urritasuna, inmigrazioa eta kooperazioa izango dira martxoko hiru astelehenean jorratuko diren gaiak

**D**anok Kide elkar-teak, Lasarte-Oriako kultura sailaren laguntzarekin, VII. Zinema soziala zikloa antolatu dute.

Hiru saio izango ditu aurtengo edizioak eta hurrengo astelehenean, martxoaren 7an hasiko da.

Aurreko urteetan bezala, sarrera doakoa izango da eta Manuel Lekuona kultur etxe-ko aretoa izango du leku. Eta orduari dagokionez, saioak 17:30ean izango dira.

## Gizarteko gaiak

Zinema ziklo honen helburua, herritarrek jorratzen diren gaiekiko sentsibilizazioa eta interesa sortzea da.

Horregatik, filmeetaz gain, gaiarekin zer ikusia duten elkarteak gonbidatzen dituzte haien esperientzia azaltzeko.

Aurten gizarteko gaiak izango dira jorratuko direnak, adimen urritasuna, inmigrazioa eta kooperazioa.

Adimen urritasuna izango da astelehenean aztertuko



Gizarteko gai desberdinak jorratzen dira Zinema Zikloan, filma eta hizlarien bitartez.

den gaia. Horretarako *Yo, también* filma eta *Gureak* taldeko tailerretako arduradun bat izango da aretoa.

Martxoaren 14an, inmigrazioa izango da gaia. Esperanza Latina elkarteak kideak egongo dira bertan eta *Agua con sal* filma izango da ikusgai.

Azkenik, martxoaren 21ean, *Medicus Mundi* elkar-

tearen eta *Retorno a Hansala* pelikularen eskutik kooperazio eta elkartasunaren gaian murgilduko dira saiora hurbiltzen direnak.

## Herritarrek animatu

Danok Kide elkarteak herritarrek animatu nahi ditu Manuel Lekuona kultur etxe-ko aretora hurbildu eta saio hauetan parte hartzea. •

## Lasarte-Oriak komun publikoa du

**L**ehenengo bainugela publikoa urtarrilaren 25ean martxan jarri zen Lasarte-Orian.

Loidi-Barreneko frontoia-  
ren ondoan dago eta Udalak herrian jartzea aurreikusita duen artean lehenengoa da.

Ekimena herritar elkartean eta herritar ugariren eskaeraren ondorioa da. Alkatearen hitzetan, "proposamen hauei erantzun azkar bat ematea garrantzitsua iruditzen zitzai-  
gun, modu horretan lasarte-  
riatarraren bizi-kalitatea hobetzeko, batez ere jende helduarena, izan ere, tankera horretako instalazioak edukitze-  
ko lasaitasuna beharrezkotzat jotzen dute".

## Egokitutako bainugela

Bakarrik garbitu eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako egokitua dagoen bainugela da *Proiek* enpresak jarri duena.

Barruan komunaz gain, kanila, eskuak lehortzeko eta ispilua ditu.

Funtzionamenduari dago-  
kionez, bainugelako sentso-  
reek erabiltzaile baten sarrera antzematen dute, atea ixten da. Erabiltzaileak irten nahi duenean atearen ondoan dagoen botoi gorria sakatu beharko du. Atea 15 minututan gehienez itxia egongo da.

Behin pertsona bainugelatik aterata, 45 segundotan ez da erabilgarri izango, garbiket-

ta zikloa hasten delako. Honetan komun-ontzia garbitu, tapa desinfektatu eta lehortu eta lurra garbitzen da.

Lasarte-Oriako Udalak bainugela publikoetan inbertsioak egiten jarraitzeko asmoa agertu du eta horregatik Zabaleta, Kotxeras eta, seguruenik, Atsobakar auzoetan instalazio berriak jarri dituela jakin ara zi du. •



Loidi Barreneko pilotalekua eta Loidiko tunelaren artean dago komun publikoa.

KORRIKA 17

## Arropa salgai Urruzola mertzerian

Korrika 17aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte. •

UDALA

## Ekoscan araua ezartzeko barne-bloga egin du Lasarte-Oriako udalak

Lasarte-Oriako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean jasotzen zen "Lasarte-Oriako Udaleko eraikinean Ekoscan ingurumenaren hobekuntzarako sistema egiaztagarria" ezartzeko beharra.

Udalak zituen kontsumo eta gestio sistemak aztertu eta eraman behar duen ingurumen-gestio programara ezartzeko, Minuartia Enea taldea kontratatu zen.

2010eko abenduan, Jesus Zaballos alkateak ingurumen konpromisoa sinatu zuen eta honen bitartez, ingurumen-gestio programara jarri da martxan. Hiru dira programa horren helburu nagusiak: zabortegira bidaltzen den ontzi kopurua murriztea, erosketa eta kontratazio publikoetan irizpide berdeak ezartzea eta karbono dioxido isurpenak murriztea.

Gauzak honela, Udal-EKO, Lasarte-Oriako Udaleko langile guztien eskura dagoen barne-bloga, sortu dute. Honen bitartez, Ekoscan Arauaren eta martxan jarri den ingurune-gestio sistema berriaren informazioa jaso ahalko dute.

On line erreminta bezala sortzen da eta informatzeaz gain, hobekuntza ekintzetan langileen parte-hartze eta inplikazio handiagoa lortzea ere du helburu. •

IRADOKIZUNAK

## Udalari iradokizunak egiteko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten da. Orrialdea Udaleko harreran dago eskuragarri, baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreran dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea. •



Abdon Fernandez presidente berriak hitz batzuk eskaini zizkien hurbildu zirenei.

## Ohorezko ardoarekin amaitu ziren Andaluzia eguneko ospakizunak

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak asteburuan hainbat ekitaldi antolatu zituen Andaluziako eguna ospatzeko, Semblante Rociero abesbatza rozieroa, Barakaldoko *Hijos de Jaen* taldearen emanaldia, etab.

Eta ekimen desberdinei amaiera ezin hobe emateko egunean bertan, hau da, astelehenean otsailaren 28an,

ohorezko ardoa eta Andaluziako produktuen dastatzea eskaini zuten Semblante Andaluz elkartearen.

Bertan elkarteak kideak eta lagunak bildu ziren, baita Udaleko edo alderdi desberdinetako ordezkariak ere.

Dastatzea hasi baino lehen Abdon Fernandez elkarteak presidente berriak hitz batzuk eskaini zituen. •

Tomas Arruti eta Pontxo Morales Txalapartariak

# “Elkartasun bidaiia izan da Italiakoa”

Bost lasarteoriatarrek euskal musikaren doinuak eraman zituzten Turin eta Florentziara

**Euskal Herriarekin 5. Nazioarteko Elkartasun Astea egin zen Europa eta Ameriketako hogeii herrialdetan otsailaren 13tik otsailaren 20a bitartean. Askapena erakunde internazionalistak eta Euskal Herriaren Lagunak nazioarteko elkartasun dinamikaren izenean antolatutako astea izan zen. Ekimen politiko, sozial eta kulturalak antolatu zituzten, *Eskubide zibil eta Politikoak Euskal Herriarentzat. Autodeterminazioa orain!* lelopean. Ekimen honen barruan Nahia Iparragirre, Aitzol Lasa, Zarautz, Tomas Arruti eta Pontxo Morales herritarrak Turin eta Florentzian egon ziren txalaparta, pandero, trikitixa eta adarraren doinuak zabaltzen.**

Itxaso MORENO

Asteburuko bidai azkar batean Turin eta Florentzian izan ziren bost herritarrak. Euskal Herriaren Elkartasun Astearen barruan, euskal doinuak eraman zituzten Italiako bi herrialde hauetara. Bidai honi buruz hitz egiteko Tomas Arruti eta Pontxo Morales lasarteoriatarrekin bildu gara.

Otsailaren 18an, ostiralean Loiuo aireportutik ateratzen zirenean bi musikariek beste hiru lagunekin batera: “bidai intentsu honetan txalaparta jo eta gure herriko doinuak eraman ditugu”.

## Askatasuna eraikina

1996. urtean okupatu zuten behean ikusten den eraikin gorri hori eta garai horretan jarri zitzaion gaur egun daukan izena, Askatasuna. Izen honekin da ezaguna. XX. mendearen amaieran “italiar ugari zegoen euskaldun jendearekin harremanetan eta hortik etorri zen izena” azaldu digute bidaiariek. Askata-

suna eraikin autogestionatua eta oso handia da “kontzertuetarako lokalak, barra, sukaldea, gimnasioa, logelak, haurtzaindegia... denetik dauka kultur etxe funtzioa betetzen duen eraikin honek”. Antolamendu ordenatua eta auzoarekin inplikazio handia dute Askatasuna eraikinean: “krisialdi garai honetan kalean geratzen ari den jendeari babesa ematen saiatzen ari dira, kale gorrian geratu ez daitezten”.

Eraikina Turin hiriburuan dago eta hain zuzen lurralde italiar hori izan zen lasarteoriatarren asteburuko lehenengo galeku Italian. Askatasuna eraikinean otsailaren 18an euskal doinuak entzun ahal izan ziren beraiei esker, baina horietaz gain Korsikar eta italiar talde bik ere hartu zuten parte antolatutako ekitaldietan.

70 pertsona bildu ziren bertan eta momentu bitxi bat ere izan zen Korsikar eta euskaldunen artean. Korsikarrek Mikel Laboaren Hegoak Ebaki Banizkion abestia jo zuten eta euskaldunak animatu egin



Florentzian dagoen Centro Popolare Autogestito Firenze Sud-egon ziren otsailaren 19an bost herritar hauek.

ziren: “gu inprobisazioan sartu ginen eta fusio polita sortu zen”.

## CPA FI SUD

Turin utzi eta Florentziara abiatu ziren lasarteoriatarrek. Berritoren ere, beste eraikin autogestionatu batera salto egin. Oraingo honetan, 1986an sortutako, Centro Popolare Autogestito Firenze Sud-era.

Oraingo honetan musikaz gain hitzaldiak ere antolatu zituzten Euskal Herriaren egoeraren berri emateko “bertan Etxerat-eko kide bat, preso baten iloba eta atera berri den preso baten bidez helarazi zitzaizaien gure herriaren berri”. Hitzaldia bukatu eta berriro txalapartari ekin zioten Tomas Arruti eta Pontxo Moralesek. Amaitzean bi talde italiarrei eman zieten pasoa.

Honen ostean “100 pertsona bildu ginen afari herrikoian parte hartzeko eta Euskal Herriari elkartasuna adierazteko”.

## E.H.ren berri zabala

Euskal musikaz gain euskal kultura beste herrialde batzuetara zabaltzea izan dute helburu antolatzaileek “programazio zabala baten bidez euskal herriaren arlo ezberdinak jorratzea”. Hemen pairatzen den egoera “zabalduta eta gatazkaren alderdi ezberdinak hurbileko jendearen bitartez kontaktzea”.

Hitzaldiak, musika eta “nola ez ba” afariak... horrela hurbildutakoak gure herriaz gehiago jakiteko aukera izan dute, “batzuek hala ere gaian murgilduak zeuden”, hau da, batzuentzako dena berria zen bitartean “beste batzuek galdera zehatzak egiten zituzten”.

Egun interneti esker nahi den informazioa eskuratu daiteke “gauza da jakitea non bilatu behar den eta hauek bazekiten non aurkitu, horrek asko harritu gintuen”.

Txalapartak ere zirrara eragingo zuten italiarrei, “batez ere jotzeko gogoia, probatzeko aukerak” bi herritarrek adierazi diguten: lehendabizi beraiek jo, hainbat detaile azaldu eta gero “utzi genien probatzen”.

## Elkartasunaren bila

Euskal Herriak askotan erakutsi dio beste herrialdeei bere elkartasuna “beste herrialdeekiko hitzaldiak, kontzentrazioak antolatzen ibili gara, azken finean gure elkartasuna beste herrialdeei adierazten, baina oraingoan jo izan gara elkartasunaren jasotzaile”.

Bai Turinen eta bai Florentzian denetarik bildu da, talde anitz eta adin ezberdinekoak izan ziren “arraro sentitzen zara talde heterogeneo batetik elkartasuna jasotzen, baina esperientzia oso polita da”.

Euskal Herriaren egoera ez da bakarria Europako “Korsika-

rrak berdin daude, euren independentzia aldarrikatzen dute. Europaren barnean gaude guztiak, eta elkartasunean oinarritu behar gara indarrak eskuratzeko”.

## Giro euskalduna

Florentziako eraikin autogestionatuan jotzen hasi zirenean, bertan erasmus programari esker zegoen nafar batek, “fandangoa entzun, erdira ateratzen eta dantzatzen hasi zen. Horrek bai harritu zituela han bildutako guztiak”.

Gainera, musikarari hauen aburuz italiarrek baino Florentzian eta Turin zirenean euskaldunak harritu ziren gehien haien presentziarekin “kartelak ikusi eta zer izango ote zen galdetu zioten euren buruari, ikustera pasa eta flipatu egin zuten Euskal Herriaren eguna Italian ospatzearekin”.

## Igandean, etxera buelta

Florentziako gauak luze jo zuten musika, dantza eta giro onari esker. Baina gauza guztiak bezala bukatu eta Lasarte-Oriara bueltatzeko ordua iritsi zitzaion bost lasarteoriatar hauei.

Bidai azkarra izan da, ostiraletik igande bitartekoa, baina esperientziak baterikoa “oso intentsua eta polita izan da bertako jendearekin bilduta eta euskaldunoi eskaini diguten elkartasun hori pertsonalki jaso ahal izatea”. •



Turinen dagoen Askatasuna eraikinean euskal doinuak entzun ziren otsailaren 18an.



# Somotoko auzia berriro piztu da

■ Oposizioko alderdiek diru laguntzen ikerketa batzorde berezian oztopoak daudela salatu dute ■ Egun hauetan, *Noticias de Gipuzkoan* argitaratutako berriak ere hizpide izan zituzten

2009ko abenduan sortu zen Diru laguntzen ikerketa batzorde berezia. Hilabete hauetan lanean jardun da, baina, oposizioko taldeek ikerketak daraman erritmo mantsoa eta dauden oztopoak salatu dituzte behin baino gehiagotan. Orain, *Noticias de Gipuzkoa* aldizkariak argitaratu dituen albisteak direla eta, salaketa berria egin eta datu horiek guztiek ikerketari bultzada emango diotela espero dute, baita erregistroari eskatuko dioten Ana Urchueguiaren ondasun eta jardueren aitopena ere.

## TXINTXARRI

**D**iru laguntzen ikerketa batzordeko saioaren ostean, astelehenean, oposizioko alderdietako batzuk, EAJ, H1! Ezker abertzalea eta LOHP, prentsaurrekoa eskaini zuten batzordeari eta egun hauetan *Noticias de Gipuzkoa* aldizkariak eskaini dituen berriei buruz iritzia emateko.

### Ikerketa batzordea

Ezker abertzaleko zinegotziek Somotora bideratutako kooperazio laguntzen ikerketarako komisio bereziak orain arte egin dituen eta hartu dituen erabakien balorazioa egin zuen. Zinegotzien ustez, ikerketa batzordea "larri dago" eta hainbat oztopo eta arazo daudela azpimarratu zuten, "PSEE eta PP saiatu dira ahal den oztopo, zailtasun eta erritmo geldoa ezartzen, helburu bakarrarekin: presarik gabe azukre koxkor bat bezala desegiten utzi batzordea ikerketa amaitu ez dadin".

Eskatutako dokumentazioa ez izatea edo agerraldiak lotuak ez egotea eta batzorde buruak nahi dituen jartzea dira oztopoetako batzuk.

"Agertu beharreko zenbait pertsonen agerraldia oztopatu da, hala nola, Somotoko alkate

ohiarena, OHOLseko arduradunena eta Delloite enpresako arduradunena... Salagarriagoa da batzorde buruak onartutako udaleko hainbat arduradun edo kargu ohi ez agertzea, abisua eman eta gero," jakin arazi zuten prentsaurrekoan.

Honetaz gain, batzorde buruak Encinas PPko zinegotziak haienganako duen jarra salatu zuten, berriro ere.

EAJko zinegotzi Estitxu Alkortak salatu zuen, Zaballos alkateak, PSEE eta PP alderdiek ikerketa batzordea mantsozotzen dutela: "Ikerketa batzordeak amaiera data bat du, hauteskundeak eta ez da denborarik geratzen" adierazi zuen Alkortak.

Hala ere, asteleheneko ikerketa batzordeko saioan kronograma bat eta apirilaren erdi alderako ondorio txostena egotea adostu zutela jakin arazi zuen, "PSEEn abstentzioarekin".

Halabaina alderdiak ez dira fio eta ezin dute ziurtatu egutegi hori aurrera eramango denik. Esate baterako, Hamakabat alderdiko Jexux Izetaren ustez, "hasieratik genekien batzordeak ezer ez zuelako argituko, baliogabekoa izango zela".

Era berean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak argitaratuko duen informazioa ez ditu



H1!, ezker abertzalea, LOHP eta EAJko zinegotziak astelehenean eskaini zuten prentsaurrekoan.

herriko alderdiak sorpresaz hartzen.

### Somotoko albisteak

Ezker abertzaleko zinegotzien ustez, "informazioa guztiaren azterketa eta ikerketa egin behar da eta zein ekintzak aurrera eramanez diren ikusteko"

Agertutako berriek Ikerketa batzordeari bultzada ematea espero duela adierazi zuen Ana Prieto, LOHPko zinegotziak. "Egunkari honek gure alderdiak lau urtetik hona sari egin duen salaketa egiaztatzen du, Somotoko kooperazio ez dela ongi kudeatua izan eta ez dela kontrolik egon", aipatu zuen.

Alderdi jeltzaleko Estitxu Alkorta ere bat etorri zen iritzi horrekin eta "diktadore moduan, laguntzen jabe izan da. Guk hori salatu dugu, entzun nahi izan diguten erakundeetan" atxiki zuen.

Horretaz gain, "2007an agertu ziren bideoetan ikusi ahal zen, zein den Anaren kooperazioari buruzko ikus-

pegia eta hala ere, PSEEk bere karguetan mantendu zuen", adierazi zuen.

Era honetara, PSEE alderdiaren erantzukizuna ere salatu zuen Alkortak eta horrekin bat agertu zen LOHP ere: "Plataformak azaroaren 2006an, Patxi Lopez, Miguel Buen eta Alberto Bueni eskutizak bidali genizkion guk eskuratutako dokumentuekin eta abenduaren 25an, Capital aldizkariako informazioa ere bidali genien".

Azkenik, "albisteak egia badira dagokien erakundeek ofiziozko salaketa egin behar dute," esan zuen Alkortak.

### Erregistroan eskaera

Gauzak honela, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak Ana Urchueguiaren jabetzei buruz egindako albisteak kontuan izanik, alderdiek Lasarte-Oriako alkate ohiares ondasun eta jardueren aitopena eskatuko dute erregistroan.

"Dokumentu publikoa da eta lortzen badugu, ikerketa batzordearen esku jarriko

dugu, bertan aztertzeko" jakin arazi zuten.

### EBren prentsa-oharra

Bestalde Ezker Batuako zinegotzia Ricardo Ortega prentsaurrekoan egon ez bazen ere, prentsa-ohar baten bidez, oposizioko beste alderdiekin bat etorri zen ondasun eta jardueren aitopena eskaera egitearekin.

Honetaz gain, oharraren arabera, Fiskaltzak hartuko duen erabakia kontuan hartu gabe, beti ere, delitua balego, PSEE alderdiak eta Urchueguiak azalpenak eman behar dituela adierazten du, alkate ohiak Somoton egindakoa argitzea.

### Udalak azalpenik ez

Egun hauetan alderdi desberdinak ari dira erantzukizunak eskatzen.

Txintxarri aldizkaria Lasarte-Oriako udalarekin jarri da harremanetan eta Somotoko berriei buruz, momentuz alkateak ez duela ezer esango jakin arazi digute. •



# ANAIK

## JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA

Tel.: 943 362386



Kirolak eta agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 05**

11:00etan, Dunboa Eguzki - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) San Jose Obrero, Irunen.  
11:30etan, Ostadar - Beasain (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.  
11:30etan, Amaikak Bat - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, txapelduen fasea) Errotazar, Deban.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 04**

21:00etan, ISU Leihok - Tellatuberri Zaldibi (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kirolegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

19:45ean, Oria kristaldegia - Izkiña  
20:40ean, Kalaberri Z - Lekuona Mena

**Larunbata 05**

19:15ean, La Bellota - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Bikuña kiroldegia, Legazpian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

10:00etan, Buenetxea - Ayete  
11:00etan, Viña del Mar - Ainhua  
12:00etan, ISU Leihok - IOB H.K.  
13:00etan, Obelix - S. Andalu  
14:00etan, Epel - Indaux  
15:00etan, Morrison's - Illun  
16:00etan, Izarra - Katakra  
17:00etan, Naiban - Ilargi

**PILOTA**

**Larunbata 05**

12:00etan, Intza - Euskal Giroa (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, III. kadetea, finalerdia) Michelingo frontoian.  
16:00etan, Hernani 2 - Intza (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Hernanin.

**PALA**

**Larunbata 05**

15:00etan, P. Sarasola eta J. L. Urruzola - O. Lazkano eta I. Arluizaga

15:45ean, I. Bardaji eta A. Zubizarreta - I. Begiristain eta X. Etxezarreta

**Igandea 06**

09:00etan, I. Lizaso eta J. Alzibar - J. Iparragirre eta K. Rozas

**ATLETISMOA**

**Larunbata 05**

Egun osoa, LOKEko Gaizka Ormazabal eta Irati Larraraga, junior mailako Espainiako txapelketan lehiatuko dira, Sabadellen.

**Igandea 06**

10:30ean, herriko hainbat korrikalarik I. Beasaingo Herri Lasterketan parte hartuko dute, Beasainen.

**IGERIKETA**

**Larunbata 05**

Egun osoa, Buruntzaldea Igeriketa taldeko infantilak Euskal Herriko Txapelketan izango dira, Irunen.

**Igandea 06**

Egun osoa, Buruntzaldea Igeriketa taldeko infantilak Euskal Herriko Txapelketan izango dira, Irunen.

**TXIRRINDULARITZA**

**Larunbata 05**

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek XXIX Usturbe proban parte hartuko dute, Beasainen.  
16:30etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Hernaniko Sarian parte hartuko dute, Hernanin.

**Igandea 06**

09:00etan, Ostadarreko zikloturista taldea Zumaia inguruan du iteera  
10:30etan, Buruntzazpi eskolako jubenilek XXXIV Udaberri oroimenezkoan parte hartuko dute, Eibarren.

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 06**

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak lehendakari txapelketako jardunaldia dute Gabirian.

# LOKEko judoek domina ugari lortu dituzte

Judoko Euskadiko txapelketan eta Estatuko sanbo lehiaketan lan ona egin zuten Aristegiren mutilek

LOKEko judo saileko gazteak txapelketaz txapelketa ibili dira otsailean zehar, Estatuko sanbo txapelketa, Euskadiko junior eta kadete txapelketak, 23 urte azpiko, infantilen eta alebinen Gipuzkoako txapelketak...

Maila desberdinetako judoek bere balio erakutsi dute eta hainbat txapeldun eta domina berri daude Gorka Aristegi zuzentzen duen taldean.

**Euskadiko txapeldunak**

Larunbatean, Gasteizen Euskadiko junior mailako judo txapelketa ospatu zen.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "emaitzak oso onak izan ziren." Gainera, gazteek eskainitako mailarekin oso pozik agertu da. Izan ere, LOKE taldeko sei judoka gazte egon ziren lehiatzen eta seiek eskuratu zuten dominaren bat.

Leire Zubizarretak, Josu Olmos eta Mario Garridok titulu berria dute haien garapen-zerrendan batzeko, Euskadiko txapelduna izatearena, hain zuten ere.

Entrenatzaileak azaldu digunez, hiruak haien borrokkak erraz irabazi zituzten eta Josu Olmosek, gainera "oso maila altua erakutsi zuen".

Bestalde, Kiara Tobajas, Asier Sagasti eta Esteban Martinezek brontzezko domina eskuratu zuten.

Entrenatzailearen hitzetan, Kiara Tobajas bere eskua zegoen hobetzea.

Martinez kasuan, zera azaldu du Aristegik, "borroka guztiak irabazi ditu, baina final aurrekoan bere klubeko kideak, Mariok irabazi dio".

Gauzak honela, Mario, Josu eta Leirek Espainiako txapelketako sektoreko sailkapenean parte hartuko dute, martxoaren 19an.

**Sanbo lehiaketa**

Bestetik, asteburuan, Gijonen Estatuko senior eta jubenilen mailako sanbo txapelketa jokatu zen.

Honetan, LOKEko hiru gazte Estatuko txapeldun izendatu ziren.

Murtziako Errendimendu Handiko Zentroan dagoen Amaia Curielek senior eta jubenil mailan parte hartu



Arg.: Gorka Aristegi

Euskadiko jubenil txapelketan parte hartu zuten judokak eskuratutako dominekin.

zuen eta bietan egon zen podiumean, senior mailako Estatuko txapelketa eskuratu baitzuen eta jubenil mailan, zilarrezko domina.

Era berean, Mario Garrido eta Josu Olmosek ere lan paregabea egin eta haien mailako txapela eskuratu zuten.

**Gipuzkoako txapelketa**

Otsailaren 13, berriz, Gipuzkoako 23 urte azpikoek txapelketa egon zen Lezon.

Honetan bost judoek podiumean egotea lortu zuten.

Kiara Tobajas eta Esteban Martinezek bigarren postua eskuratu zuten haien mailatan eta Leire Zubizarreta, Mario Garrido eta Asier Sagastik hirugarrena.

**Kadete txapelketa**

Era berean, otsailaren 12, Gasteizen Euskadiko kadete mailako txapelketa egin zen.

Lan ona egin zuten Gorka Aristegiren gazteek eta bi domina ekarri zituzten Lasarte-Oriara.

Kiara Tobajasek zilarrezko postua eskuratu zuen eta Josu Olmosek hirugarrena. Abayuba Gutierrezek ere txapelketan parte hartu zuen eta bere mailako bosgarrena izan zen.

**Infantil eta alebinak**

Bestalde, lehengo igandean ere, infantil eta alebin mailako judoek lehiaketak izan zituzten, Lezon.

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketan hiru brontzezko domina eskuratu zituzten Gorka Aristegiren mutilek.

Esteban Garcia, Fermin Balda eta Oscar Garridok haien mailako hirugarren postua eskuratu zuten.

Hauetaz gain, aipagarriak dira, Iñaki Fernandez eta Asier Zubizarretaren bosgarren postuak.

Bestalde, Landaberri-Sasotea ikastetxeetako alebin taldeek ere lurraldeko txapelketa izan zuten.

Bai neskek, baita mutilek ere bosgarren postua eskuratu zuten. •

Kirolak eta oharra

**Buruntz Azpi elkarteak ehiza txapelketa**

Buruntz Azpi elkarteak, martxoaren 12an, larunbatean, elkarteak ehiza txapelketa antolatuko du Buruntza mendiko larretan. Aurreko urteetan bezala, txapelketaren ostean, indarrak berreskuratzeko bazkaria egongo da.

Txapelketan parte hartzeko, elkartearen izena eman behar dute interesatuek martxoaren 9a, asteazkena baino lehen.

**Eskola kiroleko topaketak**

Eskola Kiroleko benjamin mailako atletismoko topaketa martxoaren 5ean aurrikusita bazegoen ere, 12an izango da. Honen inguruko informazioa helaraziko zaie parte hartzaileei.

**XXIII. Squash txapelketa soziala**

Lasarte-Oriako Kirolen Udala Zerbitzuak hogeita hirugarren Squash txapelketa soziala antolatu du. Partehartzaileek gutxienez 14 urte izan behar dute. Txapelketan parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 11 artekoko epea dute Kirolegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurokoa da.

*Amaia Curiel sanboko Estatuko txapeldun berria da; Leire Zubizarreta, Josu Olmos eta Mario Garrido jubenil mailako Euskadiko txapeldunak*

Astelehena, 7

**Zine soziala**

YO, TAMBIEN FILMA eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Adimen urritasunari buruz arituko da Gureak. Kulturetxean, 17:30ean.

Asteartea, 8

**Emakumeen eguna**

SORMENEO BIRZIKLAPEN TAILERRA egingo da. Birziklatutako materialarekin poltsak eta diru-zorroak egingo dira. Eguraldi txarrekin, Zentro Zibikoan egingo da tailerra. Centro UR, sormeneko birziklapena-k eskainiko du tailerra. Brigitarren komentuan, 10:00etatik 12:00etara.

**Emakumeen eguna**

Gracia Querejetaren "SIETE MESAS DE BILLAR FRANCÉS" filma eskainiko da. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etan.

**Emakumeen eguna**

EMAKUMEEN BIZITZA LABORALARI buruz arituko da Nagore Vazquez psikoterapeuta. Zentro Zibikoan, 18:30ean.

Ostirala, 11

**Emakumeen eguna**

EPAko antzerki taldeak Agatha Christie-re "La Ratonera" lana eskainiko du. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.



Musika mota ezberdinak eskainiko ditu Joseba Irazokik gaur

JOSEBA IRAZOKI musikari nafarrak kontzertua eskainiko du Xpression eta Udalaren arteko hitzarmenaren barruan. Musika ezberdinak entzuteko parada izango da emanaldi honetan. Pop musika, folka, rock zertzeladak eta bapateko musika sorkuntzari bide emango dio Josebak.

GAUR, OSTIRALA 4  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN  
20:00ETAN, DOAN

**Emakumeen eguna**

AFARI HERRIKOIA antolatu dute eguna ospatzeko eta herriko emakume guztiei dago eskainia. Afariaren prezioa, 24 eurokoa da eta izena Zentro Zibikoan eman behar da. Araeta jatetxean, 21:30ean.

Igandea, 13

**Zinea**

El pequeño rey Macius haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3, 30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, gaztelaniaz.

Inauteriak 2011

Larunbata, 5

**12:00etan** TXUPINAZOA Sagardotegi kalean.

**12:30etik 14:30era** PINTXO POTEOA Gauerdi txaranga-ekin eta Amalur Trikitilari-ekin (Jalgi, Dakara, Ilargi, Insausti, Iñaki, Avenida, Buenetxea).

**14:30ean** BAZKARI HERRIKOIA Sagardotegi kalean.

**15:15etik 16:00era** EKITALDIA Sagardotegi kalean: Jotak, zezenketa, batukada, malabarak...

**16:30ean** DESFILE BATERATUA Isla plazatik erdigunera: Zentro Zibikoa, San Fermín konpartsa, Amalur Trikitixa eskola, Zakiliwester, Indioak (Elkar taldea)...

**19:30ean** DANTZALDIA Sagardotegi kalean.

**23:00etan** RUBI BERRIAK TALDEAREKIN dantzaldia Loidi Barreneko frontoian.

**00:00etan** ZIGOR DZ Djaren emanaldia, Jalgin.

Igandea, 6

**12:00etan** EUSKAL INAUTERIAK KONPARTSAREN IRTEERA Oztaran auzotik.

**18:15ean** EUSKAL INAUTERIAK KONPARTSAREN IRTEERA Oztaran auzotik.

**Oharrak**

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko alian-tza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neska-aren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, haur zamarra bat eta larruzko zamarra bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Sorgin Dantza**

Ttakun kultur elkarteak 25. urteurreneko Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazten die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien orogariak, boligrafoa eta giltzatak, Ttakunen egoitzan, Geltoki kalea 4 daudela

**Estutxe bat galdu da**

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da. Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M<sup>a</sup> Angeles).

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

**Eskutitza**

**Utzi bakean euskal gazteria! Euroagindurik ez!**

Bergoi, Xalba, Jaxinto, Aiala, Beñat, Aitziber, Irati eta Endiak unibertitate, lantegi, gaztetxe, kalean eta oro har, gazte mugimendua ziharduten gure antzera, horrexegatik honatx, Lasarte-Oriatik gure babes eta besarkada beroena beraiei, senideei eta lagunei, azken boladan bizitzaren ari diren bidegabezko egoerarengatik.

Aurreko astean eman ziren gazteen atxilotetak ez ziren egun batetik besterako kontua izan, gazteek bizi izan duten jarraipen eta indentsioa, azken urteetan maiz bistaratutakoaren ari beretik dator. Gazte mugimenduko

eragile desberdinetako kideak uneoro kokatzen gaituzte errepresio bortitz eta basatiaren jo-mugan, gure eskubide zibil eta politikoak erabat murriztuz. Herrian herriarentzat eginiko lana oinarri harturik, injustiziaz beteriko demokrazi ustel baten aterkipean denak balio duenaren aitzakia erabiliz, euskal gazteria kriminalizazioa bilatzen dute estatu espainiar eta frantsesek.

Bada, orain bi aste Izpuru- zortzi gazte horiek jendaurreko itxialdi bati ekin zioten azken hilabeteetan bizitzaren ari ziren egoera salatu eta estatu espainiarrek iragarritako bidegabezko estradizio euroaginduari muzin egiteko. Gazte horiek beren etxeetatik ihes egin

beharrean aurkitu ziren, pasa den Urrian estatu espainiarreko hatzaparrek modako sare-kaden tresna errepresiboaren bidez atxilotu nahi izan zituztenean, torturatuak eta inolako eskubiderik gabe espetxeratuak izateko beldurrez.

Guk ez dugu hautatu gure sorterrria, baina Euskal Herria jaiokak gara; zorienez, edo batzuen zoritxarrez, herrian lan egiten dugu bestelako Lasarte-Oria bat lortzeko. Hortaz haratago gure hitza, kultura eta herria zapalduak izatetik, errespeta- tuak eta aske izatera pasa daitezten egiten dugu lan egunerako, ahal dugun neurrian. Egunak daramatzagu, hilabeteak, urteak, hamarkadak...eta beharbada

oraindik ere, kolpe gogorrek jasoko ditugu Euskal Herrian bizi garen eta lan egiten dugun gazteok, baina horretarako jaiokak bagara ere, ez dugu etsiko gurean!

Halaber, lerro hauen apal-tasunetik, bihar larunbata eguerdiko 12etan udaletxe aurrean burutuko dugun elkarretaratzera hurbil zaitezten eskatzen dizuegu herriki-deok. Inauteriak badira ere, Euskal Herria gazte izate hutsagatik pairatzen ari garen kriminalizazio egoera eta, eskubide zibil eta politikoen urraketa larria salatzeaz gain, Izpuruko gazteei babesa adierazteko.

**Herriko gazte independentistak**

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Pilar Soberon Artista

# Pilar Soberonen oro-grafia

Lasarte-Oriako artistak bere azken lan eta erakusketen argazkiak jaso ditu Oro-grafik liburuan  
 Unean uneko eta tokian tokiko bere arte-lan eta instalazioak betiko galduko lirateke bestela

Pilar Soberonek bere azken instalazio eta arte lanak liburu batean jaso ditu. Oro-grafik liburua bi atal ditu, lehenengoan Maria Jose Aranzastiren "Atlas Geografikoa, Metamorfikoa eta poetikoa" idatzian Lasarte-Oriako artistaren lanaren nondik norakoak eta jatorria azaltzen ditu. Bigarren atalean, luzean, Soberonen azken bizpahiru urtetako lanak jasotzen dira. Arte Ederrak ikasi eta ikasketak Artelekun osatu zituen artistaren instalazioak, sarri unean unekoak dira, tokian tokirako prestatuak, eta liburu batean bilduko ez balira, galdu egingo lirateke. Beraz oso pozik dago Soberon azken urteotako bere lanak jasotzen dituen liburua argitaratu duelako.

JON ALTUNA

**P**ilar Soberon "Diziplina aniztatu dituden artista bikaina" dela esaten du Aranzastik liburua hasieran, espresibide asko erabiltzen dituen: "argazkilaritza, performancea, marrazkigintza, eskulturgintza, margogintza, grabatua, bideoa, soina, haizea, airea, lurrik, haziak,..." Naturan jasotako elementuak erabiltzen ditu bere lan edota instalazioetan eta saiatzen da mugimendua arte bihurtzen.

**Oso izen esanguratsua dauka liburua, nondik ateratu duzu?**  
 Nire arte lan batek oro-grafik du izena, orografiatik, mendien deskribapenetik, dator, baina orok euskaraz dena ere esan nahi du eta horrexegatik da oso baliagarria. Gustatzen zait hizkuntzarekin jolastea, arte-lanen izenburuetan nahastu egiten ditut euskara, gaztelera edo ingelesa.

**Gazteleraz orok beste esanahi bat dauka,...**  
 Arte lan batzuetan urrea erabili dut. Metaltze prozesua da, metalezko geruzak ematen dizkiet, hiru geruza kobrea eta azkena urrea. Azken finean kromatzea da, urre kolorea ematea.

**Oro denetarik egiten duzu eta. Bestalde, ikusleen parte hartzea ere bilatzen duzu,...**  
 Bai, azken bi erakusketetan hori gin du, esanahi gehiago izateko bide polita da ikuslearen parte hartzea eskatzea.

**Ehun pertsonari bidali zenien astigarraren hosto kromatua nahi zutena egiteko eskatuz,...**  
 Bai beraien irudi edo bideoak iritsi ahal, nik bideo batean jaso eta erakusketan bertan lan hori pixkanaka nola osatzen ari zen ikusten zen gero. Beraz hor arte lan bat bere prozesuan zegoen, denen artean pixkanaka sortzen. Oso interesgarria iruditzen zait.

**Nori bidali zenien hostoak?**  
 Hasieran nirekin lotutakoiei, nire ikasleei, irakasleei, artearekin lotutako pertsonari, arte-galeriei,.... eta gero batzuek galerian bertan utzi nituen bertatik pasatzen zirenek ere parte hartzeko aukera izateko.

**Natura agerian da zure lanean: Hostoak, haziak, itsasoa,...**  
 Bai, azkenak sorgin lorea (diende de leon), gaztainaren eskol eta astigarraren haziekin egindakoak dira. Naturan asko ikasi dezakegu, egitura, konposaketa,.... ingeniarietan ere gaur egun amiamen sareen indarra

ikertzen da esate baterako, badirudi asko dakigula baina egia esan gizakiok oraindik ikasi egin behar dugu, eta naturan iturri oso aberatsa daukagu.

**Artea egiteko modu honi, nola deituko zenioke?**  
 Historian zehar beti kokatu da bakoitza bere arloan, eskultura, pintura edo marrazkian, baina nire ustez, eta Leonardo beraren ustez, artistak behar duena erabili behar du, eta berdin dio gero zer izen duen. Nik testuinguruaren arabera behar dudana erabiltzen dut. Horrek lan asko ematen du, zeren animazio bat egiteko ikasi behar dugu eta denbora eskatzen du, baina beharrezkoa bada,...

**Marrazki, eskultura, teknologia berri,.... denetarik egiten duzu?**  
 Horrelako prestakuntza jasotzen dugu Arte Ederretako fakultatean; denetarik ikasten dugu, zeramika, argazkila-

ritza txuri beltzean eta koloretan, ordenagailua, bideoa,...

**Zer moduz zure azken erakusketak Artecon Donostian eta Vanguardian Bilbon?**  
 Oso ondo. Biak izan ziren espazio horretarako prestatuak. Asko erabiltzen dut hori, artea *in situ* egitea, horrexegatik gustuko ditut horrelako proposamenak. Alde horretatik pozik geratu nintzen.

**Zer moduzko harrera izan dute ikusleen aldetik?**  
 Ona, nik uste gustatzen zaiela, hori esaten didate behintzat. Oso erakargarriak dira. Dena den nik ez dut ikuslearen arabera lan egiten.

**Arte Ederrak ikasi zenituen, txikitik margotzen zenuen?**  
 Bai, beti esaten nuen pintora izan nahi nuela, baina Arte Ederrak ikasten eskulturak asko erakarri ninduen eta pixkanaka bideoak eta gaur egungo teknika berriagoak erabiltzen hasi nintzen. Azkenean denetarik lantzen hasi eta gaur egun horrela egiten dut, batzuetan argazkilaritza, bestetan instalazioak,.... Hauetan denetarik ikusten

dugu eta ez gaitu harritzen: bideoa eta ondoan argazkia. Eta dena lan berean dago.

**Sari asko jaso al duzu?**  
 Ez, bat edo beste. Berriki, hau, liburua argitaratzeko aukera. Oso zaila da, artista asko gara, denak proiektu ugariekin eta denak eskean,.... Erakusketak egin ondoren eskatu nuen laguntza, bereziki azken bi urtetako gauzak erakusteko. Instalazioak oso efimeroak izaten dira, hosto petaloak sabaitik zintzilikatuta jarri eta usaina ere bazuten orduan; baina zer geratuko da hortik? Liburuan ez badituzu jasotzen galtzen dira. Ez dago beste ezer. Erakusketak bat pasa denean pasa da, horrela da bizitza ere. Saltzeko ere zaila da.

**Mugimendua arte bihurtzeko asmo hori zertan da?**  
 Arteko galerian jarritako Connexions marrazkietan ikusten da. Mugimendua adierazten dute marrek, astigar hostoetan ere nabaritzen da, gorantz jarritako zeuden hegan egingo balute bezala. Agian emakume naizelako. Bada desberdintasun bat generoaren arabera, beste modu batekoak gara. Agian gizonezkoek dena finkatuta jarriko lukete eta guk kontrako, mugimendua. Horrelako egiturak garatzen ditugu.

**Bestela irakaslea zara, ezta?**  
 Bai. Lehen umeen aritzen nintzen eta orain batxilergoan; pozik, gustuko dut eta. Ogibidea bilatu behar da.

**Etorkizunari begira proiekturik ba al duzu?**  
 Azken lan hauek erakutsi nahi ditut. Batez ere eginda eta erakutsi gabe daudenak. Gerora ikusiko dugu. Liburuaren PDFa zintzilikatuko dut nire blogean, azken finean liburua ere helburua jendeak ikustea da eta. •



"Sari daldetzen didate non dagoen obra, argazkian, instalazioan edo gero sortutako bideoan. Dena prozesu bat da eta ikusleak gustuko duena har dezake".

Elkarrizketa osoa [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) webgunean

**Gelida Diference**, eskuan hartutako izotz puskei, urtzen diren bitartean, ateratako argazkiak dira.

**Orografik**, taraxacum edo sorgin lorearekin egindako lana ez du oraindik galeria batean erakutsi eta hori da bere nahia. Pareta batean loreak daude (Orografik) eta beste aldean lore horiek autorearen gorpuzari itsatsita ateratako argazkiak (Disseminations). Bi arte-lanen arteko elkarrizketa da.

## Oro-grafik liburuko arte-lanak

**Aeolia**, astigar hostoak, 400 baino gehiago, pareta batean zintzilikatu zituen mugimendua irudikatuz. "Oso gauza bitxia gertatu zen: Arteco galeriak, kristalezko sabaia dauka, eta argiak zuzenean jotzen zuenean sortutako itzal eta erreflexuak orduaren arabera aldatzen ziren. Oso polita izan zen. Bideo batean

jasoko dut". Aeolia izena eolo haizearen jainkotik dator. **Acorazadas**, nikolarekin kromatutako gaztain oskolak dira, "1925ean Eisenteinek egindako *Acorazado Potemkin* film ezagun, bitxi eta gogorrean oinarrituak". Bilboko Vanguardiako erakusketan alde batetik urre koloreko hostoak eta bestetik

oskolak jarri nituen, bata bestearekin kontrajarrita". **Bihotzak**, aluminiozko eskultura txiki pila bat dira, paretan zintzilikatuta mugimendua bilatuz. **Prozesu**, itsasoaren inguruko proiektua da, itsasoari bere gatz itzultzeko ekintzen argazkiak. Urte ezberdinetakoak: 1989an egin zuen lehen

aldiz Orion, 1995ean berriro, Lurdes Martinez lagunarekin Getarian, 1996an berriz Getarian *Acurucadas* performancea Getariako Iturzaeta eskolako haurrekin, eta azkena 2010ean Donostian, Olatu Talka ekitaldian barruan: "Prozesu hitza hondarretan jarri eta marea igotzen denean desagertzen da gatz". **Connexions**, marrazki handiak dira, Arteco aretoan egokitze-ko 3 metroko altuerakoak". •